

Kontu-hartzaileentzako eta ahaldunentzako aholkuak

Adimen- edo garapen-desgaitasuna dugunok ere gure botoa emango dugu hauteskundeetan.

Guri laguntzeko aholku batzuk emango dizkizugu:

Adimen-desgaitasuna duten pertsona guztiek botoa emateko eskubidea dute

Hauteskunde-legea aldatu egin da eta, orain, adimen-desgaitasuna dugun adindun guztiok gure botoa emateko eskubidea dugu.

Zuk asko egin dezakezu

Hauteskunde Lokaleko zure lana garrantzitsua da: hauteskundeak behar bezala eta legea errespetatuz egiten direla ziurtatu behar duzu. Eta gure botoa emateko eskubidea betetzearen erantzulea ere bazara.

Ez eman diskriminaziorako aukerarik

Adimen-desgaitasuna duen pertsona bat hauteskunde-errolako zerrendan baldin badago, bere botoa emateko eskubidea izango du. Pertsona horren itxurak ez du axola.

Lagundu adimen-desgaitasuna duten pertsoneri

Adimen-desgaitasuna dugunok ere ahaldunak edo kontu-ikuskariak izan gaitzke.

Lagundu iezaguzu lan hau egin dezagun.

Izan kontuan gure laguntzaileak ere

Desgaitasuna dugun pertsona batzuk laguntzaileak behar ditugu.

Pertsona batzuek uste dute beren alderdiaren aldeko botoa emateko engainatzen gaituztela.

Gurekin norbait datorrela eta laguntzen digula ikusten baduzu, kontuan izan garrantzitsuak direla.

Tratatu errespetuz

Errespetuz eta era naturalean tratatuak izan nahi dugu.

Gure botoa ezkutukoa da

Botoa emateko laguntza behar dugu, baina gainontzeko pertsonen botoa bezala, gurea ere ezkutukoa da.

Gogoratu: botoa ematea gure eskubidea da

Hala esaten du Hauteskunde Legeak eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak. Gainera, Espainiak hitzarmen hau sinatu zuen.